



# EAEko kirol- ohituren inkesta

2  
0  
2  
2



## AURKIBIDEA

Sarrera	3
Metodologia	4
1.- EAEko kirol-jardueraren maila	7
2.- Kirol-modalitateak	13
3.- Oinez azkar ibiltzearen jarduera	20
4.- Lotura kirol-erakunde eta/edo -federazioekin	22
5.- Kirol-jarduerarako motibazioak	24
6.- Kirol-erakunde eta/edo -ikuskitzunez joatea	26
7.- Egindako jarduera fisikoaren balorazioa eta Administrazioak jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko duen eginkizuna	34
8.- Herritarren jarrera euskal kirol-selekzioen aurrean	41
9.- KirolTxartela Mugimendua	44
10.- Ondorioak	46
Eraitzen laburpena (EAE/Estatua)	
Eranskina: Erabilitako galdetegia	



## Sarrera

2022ko EAEko kirol-ohiturei buruzko inkesta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 urtetik gorako 2.300 laguneko lagin bati zuzendutako ikerketa bat da. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak sustatu du inkesta. Inkestaren helburu nagusia EAEko biztanleen kirol-ohiturei eta -praktikei buruzko adierazle nagusiak ematea da.

Era berean, inkestak adierazle hauek ematen ditu: herritarrek jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko duten interesa; herritarrek kirol-federazio edo -erakundeekiko duten lotura; kirol-ikuskizunetara joatea eta informazio-jarraipena. Horrez gain, herritarrek jarduera fisiko gehiago egin dezaten bultzatzeko lanean pertsonak erakundeei ematen dieten eginkizunari buruzko adierazleak; eta Kiroltxartela Mugiment ekimenaren ezagutza- eta balioespen-maila.



# Metodologia

**Ikertutako unitatea** EAEko familia-etxebizitzetan bizi den 15 urtetik aurrerako pertsona da.

**Erreferentzia-tartea** askotarikoa da. Izan ere, aldagai garrantzitsuenak praktika- eta asistentzia-adierazleen ezaugarrien arabera mugatutako aldi desberdinei buruzkoak dira. Horrela, erregistratutako kirol-jarduera eta kirol-asistentzia azken urtean egindakoa izan da, baina maiztasunari dagokionez, zenbait jarduera-alditara mugatzen da: astekoa, egunerokoa, hilekoa, etab.

**Galdetegia** honela eratu da:

- **Datu pertsonalak.** Elkarrizketatutako pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak aurkezten dira: sexua, adina, ikasketak, lan-egoera, egoera zibila eta ardurapean adingabeak dituzten ala ez.
- **Jarduera fisikoarekiko eta kirolarekiko interesa.** Balorazio-eskala baten bidez (0 = interesik ez eta 10 = interes handia izanik), pertsonak kirolean, oro har, duten interesa jasotzen da, baita haien seme-alabena eta kirol-ikuskizunetara joatea ere.
- **Kirol-federazio edo -erakundeekiko harremana.** Elkarrizketatutako pertsona kirol-federazioaren batekoa den edo ez jasotzen da, bai eta kirol-erakunde edo -klubetako den eta kirola boluntarioria gisa babesten duen ere.
- **Kirol-jarduerak egitea.** Azken urteko kirol-jarduerari buruzko informazioa biltzen da, honako alderdi hauekin batera: maiztasuna, eskaintako denbora, non eta norekin egin den, eta egindako kirol-mota edo -modalitatea. Galdera-sortaren bloke honetan, antolatutako kirol-lehiaketetan parte hartzeari buruzko informazioa ere jasotzen da; kirola egiteko arrazoiak eta kirola egitean Interneteko aplikazioak erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoiak.
- Kirola egiteaz gain, ibiltzearekin (oinez edo paseoan) lotutako **jarduera fisikoa** egitea edo ez egitea jasotzen da, arinago edo astiroago, gutxienez 10 minutuz jarraian, norbere forma fisikoari eusteko edo hobetzeko helburuarekin, bai eta COVID19 pandemiaren garaian jarduera fisikoa gehiago edo gutxiago egiteari buruzko adierazleak ere.
- **Kirol-ikuskizunetara joatea eta informazio-interesa.** Ikuskizunen tipologiaren eta doakotasunaren edo doakotasunik ezaren arabera jasotzen du asistentzia. Azken urtean ikuskizunen batera joan ez izanaren arrazoiarekin lotutako galderak biltzen ditu, baita herritarrek kirolaren berri izateko erabiltzen dituzten informazio-baliabideak ere.
- **Euskal kirol-selekzioak.** Euskal futbol-selekzioak txapelketa ofizialetan parte hartzeari buruzko galdera pare bat biltzen ditu, baita nazioarteko lehiaketa ofizialetan euskal kirol-selekzioen existentziari buruzkoak ere.
- **Administrazio publikoen zeregina.** Galdetegiko galdera ireki bakarra da erakunde publikoek zer egin dezaketen herritarrei jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko. Atal hau Mugiment Kiroltxartelaren ezagutza- eta balorazio-mailaren adierazleekin osatzen da.



**Kontzeptu nagusiak. Kirola:** Parte-hartze antolatua edo antolatu gabearen bidez, egoera fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, harreman sozialak garatzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea helburu duen edozein jardura fisiko da. **Jardura fisikoa:** atsedemailaren gainetik dagoen gastu energetikoa dakarren gorputzaren edozein mugimendu da. **Ariketa fisikoa:** egoera fisikoa hobetzeko edo mantentzeko helburuarekin egindako gorputz-mugimendu planifikatu eta errepikakor bati dagokion jardura fisikoa da.

**Laginaren diseinua.** Azkenean egindako laginaren tamaina 2.306 unitatekoa da, lurraldeka honela banatuta: 549 Araban, 780 Gipuzkoan eta 977 Bizkaian. Lurralde-aldagaia alde batera utzita, laginaren diseinuak beste irizpide batzuk ere hartu ditu kontuan banaketan, hala nola sexua, adina eta bizileku duen udalerraren tamaina. Elkarrizketa horietan, hiru lurralde historikoetako bakoitzean biztanleria horren banaketa proportzionalan oinarritutako kuota batzuk bete dira.

Horrela, 3 aldagai berri horietarako egindako lagina honako hau da:

	GUZTIRA	SEXUA	
		Gizona	Emakumea
<b>GUZTIRA</b>	<b>2306</b>	<b>1113</b>	<b>1193</b>
<b>Adina</b>			
15-24 urte	232	127	105
25-34 urte	252	123	129
35-44 urte	359	178	181
45-54 urte	431	216	215
55-64 urte	396	193	203
> 64 urte	636	276	360
<b>TAMAINA</b>			
10.000 baino gutxiago	449	238	211
10.000-25.000	468	209	259
25.001-50.000	288	131	157
50.001-100.000	219	103	116
Hiriburuak	882	432	450

**Konfiantza-maila eta laginaren errorea.** Laginaren errorea  $\pm\%$  2,04 da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarekin,  $P = Q = 0,5$  hipotesia kontuan hartuta. Lagina kalkulatzeko unibertsoa 1.942.079 biztanlekoa da.

**Zenbatesleak.** Emaitzak igotzean, bi geruza bereizi hartu dira kontuan:

- Sexuaren eta adin-tarteen gurutzaketak lurralde bakoitzerako
- Sexuaren eta udalerraren tamainaren gurutzaketak lurralde bakoitzerako

Azken zenbateslea kalibratze-teknikak erabiliz lortu da, iturri unibertsal gisa 15 urtetik gorako biztanleria erabiliz, 2022ko aldian EUSTATEk emandako aldagai horietako bakoitzean.



**Prozesuaren xehetasuna.** Elkarrizketak ordenagailuz lagundutako telefono bidezko hurbilketa bidez (CATI) egin dira 2022ko irailaren 19tik urriaren 10era bitartean. Horretarako, EAEko etxeetara deitu zen telefonoz; eta bertan aipatutako ezaugarri demografikoak betetzen zituen pertsona bat hautatu zen. Elkarrizketak egiteko ordutegia 09:00etatik 21:00etara izan da. Batez besteko iraupena 7 eta 8 minutu bitartekoa izan da, eta guztira 7 elkarrizketatzailek parte hartu dute.

Informazioa biltzeko prozesuan zehar, kalitate-kontrolak egin ziren etxe bakoitzean elkarrizketatu beharreko pertsona behar bezala hautatzerakoan, kuotak betetzean eta galdetegiaren trinkotasunean. Horrez gain, landa-laneko taldeak lanaren balorazioa ere egin zuen.

Galdetegiaren trinkotasuna galdetegiak araztuz egin zen, inkestetan balio baliodunak zeudela egiaztatuz, "kirol-saio bakoitzaren iraupena" aldagaiaren portaeran muturreko balioak aztertuz eta inkesta honen emaitzak beste estatistika-iturri batzuekin konparatuz.


**Sailkapen-aldagai nagusiak.** Biztanleria sailkatzeko, honako aldagai hauek erabili dira: sexua, adina eta bizi den lurralde historikoa. Oro har, adin-tarte hauek erabili dira: 15-24 urte; 25-34 urte, 35-44 urte, 45-54 urte, 55-64 urte eta 65 urte eta gehiago.

**Emaitzen laburpena.** Argigarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera, kirol-jarduerarekin, jarduera fisikoarekin eta kirol-ohiturekin lotutako adierazle nagusi batzuk eskaintzen dira, Estatu mailan 2022an bertan lortutako emaitzekin alderatuta.



## 1.- EAEko kirol-jardueraren maila

EAEko 15 urtetik gorako biztanleen % 64,3k kirola egin du azken urtean, aldizka edo noizean behin. Kirol-jardueraren azterketak agerian uzten du kirola egiten dutenek maiz egiten dutela, biztanleriaren % 27,7k egunero, eta % 95,3k gutxienez astean behin.



Biztanleriaren % 98,9k hilean behin egiten du gutxienez, eta % 99,8k hilean behin baino tarte handiagoetan, hiruhilekoan behin.

### Emakumeek kirol gutxiago egiten dute.

Emakumeen kasuan, urtean kirola egin dutenen ehunekoa % 58,1ekoa da, gizonena (% 71) baino nabarmen txikiagoa. Kirol-arrakala ehuneko 12,9 puntukoa da.

Pertsonak, azken urtean egindako kirolaren eta sexuaren arabera, EAEn. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai, kirola	71	58,1
Ez	29	41,9

55 urtetik beherakoen artean kirola egiten dutenen ehunekoa altua da, % 78,4; aldiz, adin-tarte horretatik aurrera, berriz, nabarmen jaisten da kirola egiten dutenen ehunekoa. Hain zuzen ere, 65 urtetik aurrera, % 60 inguruk ez du kirolik egiten (% 58,8), 24 urtetik beherakoen hirukoitza.

Pertsonak, azken urtean egindako kirolaren eta adin-taldearen arabera, EAEn. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai, kirola	80,8	86,1	78	72,9	59,2	41,2
Ez	19,2	13,9	22	27,1	40,7	58,8




Lurralde historikoen arabera, Bizkaian kirola egiten duten pertsonen ehunekoa nabarmen txikiagoa da EAEko gainerako lurraldeetan baino. Horrela, bizkaitarren % 61,5ek esan du kirola egiten duela, Gipuzkoan eta Araban baino 5 eta 6 puntu gutxiago (% 67,2 eta % 68, hurrenez hurren).

Pertsonak, azken urtean egindako kirolaren eta lurralde historikoaren arabera, EAEn. 2022.

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai, kirola	68	67,2	61,5
Ez	32	32,8	38,5

Kirola egiteko maiztasuna nahiko handia da kirola egiten duten pertsonen artean, batez ere adinez nagusienak direnen artean.

Kirola egiteko maiztasunari dagokionez, ikusten da kirola egiten duten pertsonak maiz egiten dutela, % 27,7k egunero, eta % 67,7k gutxienez astean behin.



Pertsonak, azken urtean kirola egiteko maiztasunaren eta sexuaren arabera, EAEn. 2022

Oinarria: kirola egiten duten pertsonak

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Egunero edo ia egunero	29,3	25,9
Astean 3-5 egunetan	40,4	41,7
Astean 1-2 egunetan	19,2	25,1
Asteburuetan bakarrik	4,9	4,4
15 egunean behin	2,7	0,6
Hilean behin	2,2	1,5
Noizean behin (hilean behin baino gutxiago)	1,1	0,6
Batez ere oporretan	0,2	0,3





Ikus daitekeenez, maiztasuna nabarmen handiagoa da 65 urtetik gorakoen artean; izan ere, adin-tarte horretako biztanleriaren ia erdiak egiten du kirola egunero (% 48,7), gazteenak baino 20 puntu gehiago (24 urtetik beherakoek kasuan, % 28,3).

Pertsonak, azken urtean kirola egiteko maiztasunaren eta adin-taldearen arabera, EAEn. 2022

Oinarria: kirola egiten duten pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Egunero edo ia egunero	28,3	24,5	14,5	19,1	31,2	48,7
Astean 3-5 egunetan	53,2	51,4	41	43,4	33,4	28,1
Astean 1-2 egunetan	14,4	16,8	27,7	25,5	24,1	20,1
Asteburuetan bakarrik	2,5	5	7,7	6,1	4,8	1,6
15 egunean behin	0,8		3,4	2,3	3,2	0,2
Hilean behin	0,8	1,5	3,3	1,9	2,5	0,9
Noizean behin (hilean behin baino gutxiago)		0,6	1,3	1,6	0,9	0,3
Batez ere oporretan		0,3	1,1			

Arabian kirola egiten duten pertsonen artean, egunero kirola egiten duten pertsonen presentzia erlatiboa handiagoa da, arabarren ia heren batek, % 32,2k, egunero egiten baitu. Gipuzkoan, kolektibo hori kirola egiten duten pertsona guztien % 29 da, eta Bizkaian, berriz, % 25.

Pertsonak, azken urtean kirola egiteko maiztasunaren eta lurralde historikoaren arabera, EAEn. 2022

Oinarria: kirola egiten duten pertsonak


	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Egunero edo ia egunero	32,2	29,6	25
Astean 3-5 egunetan	35,2	40	43,5
Astean 1-2 egunetan	23,8	21,3	21,8
Asteburuetan bakarrik	3,4	4,4	5,3
15 egunean behin	1,8	2	1,5
Hilean behin	2,5	1,3	2
Noizean behin (hilean behin baino gutxiago)	0,5	1,4	0,6
Batez ere oporretan	0,5		0,3



Kirola egiten duten hiru gizonetik bik aire zabalean egiten dute; emakumeen kasuan, berriz, erdiak baino ez.

Kirola egiten duten biztanleen erdiak baino gehiagok aire zabalean egiten dute, baina alde nabarmena dago emakumeen eta gizonen artean. Kirola egiten duten emakumeen % 46,2k egiten du aire zabalean; aldiz, gizonen % 65,9k.

Nabarmendu behar da kirola egiten duten eta kirol-instalazio publiko zein pribatuak erabiltzen dituzten pertsonen proportzioa 10etik 4 dela gutxi gorabehera, eta kasu horretan emakumeen erabilera, % 44,6, handiagoa da gizonena baino (% 30,1).



Kirola egiten duen biztanleriaren % 6 inguruk etxean egiten duela adierazten du, % 0,3k soilik egiten du ikastetxean edo lantokian, eta % 0,2k lanera edo ikastetxera egindako joan-etorriak aprobetxatzen ditu kirola egiteko.

Kirola egiten duten pertsonak, kirol-jardueraren lekuaren edo ingurunearen eta sexuaren arabera. 2022 Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Kanpoan (kalea, zelaia, itsasoa, mendia, parkea eta abar).	65,9	46,2
Kiroldegia, kirol-instalazio publikoa	16,7	21,9
Gimnasioa, kluba, kirol-instalazio pribatua	13,4	22,7
Etxean	3,5	8,3
Ikastetxean	0,1	0,4
Lantokian		0,3
Lanerako edo ikasketetarako bidean	0,2	0,2
Beste batzuk	0,1	

Kirola egiten duten pertsonak, kirol-jardueraren lekuaren edo ingurunearen eta sexuaren arabera. 2022 Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Kanpoan (kalea, zelaia, itsasoa, mendia, parkea eta abar).	35,2	46,2	64,2	60,2	61,8	64,9
Kiroldegia, kirol-instalazio publikoa	23,1	19,5	16	19	18	20,1
Gimnasioa, kluba, kirol-instalazio pribatua	36	27,5	13,6	14,5	12,1	9,6
Etxean	4,7	6,3	5,1	5,7	7,4	5,4
Ikastetxean	1		0,3		0,3	
Lantokian			0,8			
Lanerako edo ikasketetarako bidean		0,6		0,6		
Beste batzuk					0,4	



35 urtetik aurrera, nabarmen handitzen da aire zabaleko kirol-jarduera, adin-tarte horretan kirola egiten duten 10 pertsonatik 6 izatera iritsi arte. Gazteen artean, aldiz, kirol-instalazio espezifikoaren erabilera handiagoa da; horien artean, erabilera pribatua % 36koa da; aldiz, publikoa, % 23,1ekoa.

Lurralde historikoei dagokienez, aire zabaleko kirola pixka bat handiagoa da Gipuzkoan (% 59,7). Era berean, lurralde horretan kirol-instalazio pribatuen erabilera Bizkaikoa edo Arabakoa baino % 13,4 txikiagoa da (% 20,2 eta % 19,5, hurrenez hurren).


Kirola egiten duten pertsonak, kirol-jardueraren lekua edo ingurunearen arabera, EAEn 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Kanpoan (kalea, zelaia, itsasoa, mendia, parkea eta abar).	57	59,7	54,5
Kiroldegia, kirol-instalazio publikoa	17,1	19	19,9
Gimnasioa, kluba, kirol-instalazio pribatua	19,5	13,4	20,2
Etxean	5,9	7	4,8
Ikastetxean	0,3	0,6	
Lantokian		0,2	0,1
Lanerako edo ikasketetarako bidean	0,3		0,3
Beste batzuk		0,2	

Kirola bakarka edo beste batzuekin egiten da, antzeko ehuneko batean.

Kirola egiten duen biztanleriaren % 42,6k bakarka egiten du, eta % 45,1ek beste batzuekin batera. Ikus daitekeenez, emakumeen artean, kirola beste batzuekin batera egiten dutenen ehuneko gizonena baino ehuneko 10 puntu handiagoa da – % 50,4 emakumeen artean, eta % 40,3 gizonen artean–.



Kirola egiten duten pertsonak, konpainiaren eta sexuaren arabera, EAEn. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bakarka	45,8	38,9
Aitarekin, amarekin, seme-alabekin, senideekin...	7,8	11
Lagunekin	20,7	18,7
Taldearekin	10,7	15,8
Egunaren arabera, batzuetan bakarka, beste batzuetan beste batzuekin	13,8	10,6
Beste batzuekin	1,1	4,9
ED/EDE		0,1



Kirola bakarka egiten duten pertsonen ehunekoa antzekoa da (% 45 inguru) 35 urtetik 64 urtera bitartean. Gazteenen artean eta 65 urtetik gorakoen artean, % 35 ingurura jaisten da.

Horrela, 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen artean, bi pertsonatik batek taldean egiten du kirola (% 50,6), eta ehunekoa % 60 ingurura igotzen da adin handiagoko pertsonen artean.

Kirola egiten duten pertsonak, konpainiaren eta adin-taldearen arabera, EAEn. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bakarka	36	43,1	46,8	47,2	45	35,8
Aitarekin, amarekin, seme-alabekin, senideekin...	4,4	4	11,2	11,9	9,9	11,9
Lagunekin	17,1	19,9	21,2	18	16,4	25
Taldearekin	26,1	17,3	9,1	8,1	12,1	10,7
Egunaren arabera, batzuetan bakarka, beste batzuetan beste batzuekin	13,4	14,1	9,6	12,2	15	10,5
Beste batzuekin	3	1,5	2,1	2,6	1,6	5,8
ED/EDE						0,2

Kirola egiteko konpainiari dagokionez, ia ez dago alde esanguratsurik lurralde historikoetan. Nolanahi ere, esan daiteke Bizkaian kirola bakarka egiteko ohitura zertxobait txikiagoa dela.

Kirola egiten duten pertsonak, kirola egiteko konpainiaren eta lurraldearen arabera, EAEn. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bakarka	43,8	44,1	41,1
Aitarekin, amarekin, seme-alabekin, senideekin...	10	8,5	9,7
Lagunekin	22,4	20,5	18,5
Taldearekin	9,7	12,3	14,8
Egunaren arabera, batzuetan bakarka, beste batzuetan beste batzuekin	12,4	11	13,1
Beste batzuekin	1,5	3,6	2,8
ED/EDE	0,3		



## 2.- Kirol-modalitateak

Emakumeek kirol bakarria egiten duten bitartean, gizonak kirol-modalitate bat baino gehiago egiten dituzte.

Kirola egiten duten pertsonen % 45ek kirol-modalitate batean egiten dute, eta % 55ek kirol-modalitate batean baino gehiagotan.

Emakumeen artean ohikoagoa da modalitate bakar batean aritzea (% 53,1), eta gizonen artean, berriz, % 37,9 aritzen da modalitate bakarrean.

Azken urtean kirola egiten duten pertsonak, egiten diren kirol-modalitateen kopuruaren eta sexuaren arabera. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Kirol bakarria	37,9	53,1
Kirol bat baino gehiago	62,1	46,9

Kirol bat baino gehiago egitea ohikoagoa da adin-tarte gazteenetan, batez ere 44 urtera arte kirola egiten dutenen artean: % 63-68 inguruan daude, eta maiztasun txikiak adin-tarteek gora egin ahala erregistratzen dira, balio txikiak 65 urtetik gorakoan izanik (% 33).

Azken urtean kirola egiten duten pertsonak, egindako kirol-modalitate kopuruaren eta adin-taldearen arabera. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Kirol bakarria	37,6	31,5	36,8	43,3	48,9	66,9
Kirol bat baino gehiago	62,4	68,5	63,2	56,7	51,1	33,1

Lurraldeka, Bizkaia da kirol modalitate bakarrean aritzen diren pertsonen proportziorik handiena duen probintzia (% 47,5), gainerako bi lurraldeetan erregistratzen den % 42ren aldean.

Azken urtean kirola egin duten pertsonak, kirol-modalitateen kopuruaren eta lurralde historikoaren arabera. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Kirol bakarria	42,2	42,7	47,5
Kirol bat baino gehiago	57,8	57,3	52,5

EAEn kirolen bat egiten duten herritarren artean kirol-jarduera ugari daudela ikus daiteke.

Azken urtean kirola egin duten EAEko biztanleen % 34,7k mendi-ibiliak, eskalada edo alpinismoa egin ohi du. Hala ere, aldeak daude sexuaren arabera:

- Azken urtean kirola egin duten emakumeek gehien praktikatzen duten kirola gimnasia arina da (% 36,7). Gimnasia horretan, besteak beste, dantza, pilates, yoga eta abar sartzen dira.
- Gizonen artean, berriz, kirol nagusia (% 40,3) mendi-ibiliak, eskalada edo alpinismoa da.

Gimnasia gogorraren edo arinaren praktika nabarmen handiagoa da emakumeen artean; izan ere, bi jarduerak batuz gero, emakume kirolarien % 60k baino zertxobait gehiagok bi gimnasiak egiten dituzte, baina gizonen kasuan kopuru hori ez da % 30era iristen.

Kirola egiten duten pertsonak, gehienbat egiten diren kirol-modalitateen arabera. 2022 (erantzun anizkoitza, nahi adina kirol hauta zitezkeen)

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak



Aldiz, bizikletaren praktika, edozein modalitatetan, askoz ere handiagoa da gizonen artean, gutxi gorabehera azken urtean kirol-jardueraren bat egin duten 3 gizonetik 1, emakumeen artean ikusten dena baino askoz ere gehiago (17 puntuko aldea).

Kirola egiten duten pertsonak, gehienbat egiten diren kirol-modalitateen eta sexuaren arabera. 2022 (erantzun anizkoitza, nahi adina praktika hauta zitezkeen)

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Mendia, mendi-ibiliak, eskalada, alpinismoa	40,3	28,4
Gimnasia gogorra (aerobika, crossfit, zinta, spinning, zumba, eliptikoa...)	20,3	25,8
Txirrindularitza, mountain bike, ziklokrosa,...	30,3	12,6
Igeriketa	20	22,4
Gimnasia arina (dantza, pilates, mantentzea, yoga, tai-chi...)	7,4	36,7
Korrika egin, runninga, ibilketa	21	13,8
Halterofilia, kulturismoa, muskulazioa	9,9	5,5
Futbola	9,6	1,4
Padela	6,9	2,9
Beste kirol batzuk	49,2	20



Urtean behin kirola egiten duten pertsonen % 35ek beste kirol-modalitate batzuetan egiten dute, baina % 3tik beherako parte-hartzea dute. Aipagarrienak honako hauek dira: saskibaloia, areto-futbola, futbitoa, neguko kirolak, euskal pilota eta tenisa, besteak beste.

Kirola egiten duten euskal herritarrek egiten dituzten kirol-modalitateen artean, gehien egiten diren kirolak —astero— gimnasioetan egiten direnak dira, hala nola gimnasia arina eta gogorra, baita muskulazioa eta kulturismoa ere. Kirol horiek egiten dituzten pertsonen % 95ek astero egiten dituzte. Ondoren, korrika egiteko jarduera dator, running-a, % 89ko ehunekoarekin, eta % 73koa da txirrindularitzan aritzen direnen artean.

Adina faktore erabakigarria da kirol-modalitatea aukeratzeko orduan.

Alde nabarmenak daude adin-tarteen artean modalitatea aukeratzekoan.

Azken urtean kirolen bat egin duten 35 urtera arteko gazteen artean, gimnasia gogorra da modalitate nagusia, eta 3 gaztetik 1ek baino gehiagok egiten dute (% 42k, baita 25-34 urtekoen taldean ere).

65 urtetik gorakoen artean, aldiz, gimnasia arina egiten da gehien. Zehazki, kirola egin duen adin-talde horretako pertsonen % 37,4k egin du. Ondoren, antzeko ehunekoetan, mendira joatearekin lotutako kirola eta igeriketa daude, adin-talde horretako pertsonen % 30 inguru.

Mendira joatea, mendi-ibiliak egitea, eskalada eta alpinismoa dira 35 eta 64 urte bitarteko pertsonen kirol nagusiak.

Kirola egiten duten pertsonak, gehien egiten diren kirol-modalitateen eta adin-taldeen arabera, EAEn. 2022

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Mendia, mendi-ibiliak, eskalada, alpinismoa	22,1	33,2	41,1	36,7	42,8	30,1
Gimnasia gogorra (aerobika, crossfit, zinta, spinning, zumba, eliptikoa...)	36,6	42,3	22,4	20,7	15,8	7,1
Txirrindularitza, mountain bike, ziklokrosa,...	11,8	18,8	27	24,6	25,2	21,5
Igeriketa	11,8	17	24,6	20,3	19,7	29,7
Gimnasia arina (dantza, pilates, mantentzea, yoga, tai-chi...)	11,3	11,6	17	17,8	27,9	37,4
Korrika egin, runninga, ibilketa	12,9	26,1	30,6	23	12,2	1
Halterofilia, kulturismoa, muskulazioa	20	11,2	7,5	6,7	2,4	2,6
Futbola	19,5	9,7	5,7	1,9	2,1	
Padela	4,5	9,3	3,1	9,4	3	0,8
Beste kirol batzuk	73,6	50,5	38,5	26,7	21,8	15,2




Gipuzkoan ikusten da mendi-ibiliak egiten dituzten pertsonen ehuneko handiena; izan ere, azken urtean kirol-jardueraren bat egin duten pertsonen % 41,2ra iristen da. Aldiz, jarduera hori ez da hain ohikoa beste lurraldeetan (ehuneko 10 puntu baino gutxiago).

Kirola egiten duten pertsonak, gehien egiten diren kirol-modalitateen eta lurralde historikoaren arabera. 2022


Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Mendia, mendi-ibiliak, eskalada, alpinismoa	31,1	41,2	31,5
Gimnasia gogorra (aerobika, crossfit, zinta, spinning, zumba, eliptikoa...)	21,1	20,9	24,8
Txirrindularitza, mountain bike, ziklokrosa,...	28,7	20,8	20,7
Igeriketa	25,4	18,4	21,6
Gimnasia arina (dantza, pilates, mantentzea, yoga, tai-chi...)	19,3	22,4	20,9
Korrika egin, runninga, ibilketa	15,2	20,5	16,4
Halterofilia, kulturismoa, muskulazioa	11,6	7,9	6,6
Futbola	5,3	4,8	6,5
Padela	5,2	4,8	5,2
Beste kirol batzuk	37,7	41,9	30,6

Esan bezala, kirola egiten duten pertsonen erdiek baino gehiagok kirol-modalitate batean baino gehiagotan egiten dute, eta horregatik azter daiteke kirol-modalitateen arteko erlazioa.

Hala, azken urtean mendian ibili diren biztanleen artean, nabarmen igo da txirrindularitzaren jarduera (% 34,3), eta kirola egiten duten biztanleen artean, berriz, % 22. Bestalde, igeriketa-jardueretan, parte hartzea (% 29,2) ehuneko 8 puntu handiagoa da kirola egiten dutenen artean baino. Era berean, % 24,7k runninga, korrika eta ibilketako jarduerak egiten ditu; aldiz, % 17,6 dira kirola, oro har, egiten dutenen artean.




Gimnasia gogorra egiten duten pertsonengan arreta jartzen badugu, ikusten da korrika, runninga eta ibilketa egiteko jarduerak gora egin duela (%25,9), eta kirolen bat egiten dutenen artean, berriz, % 17,6. Horrez gain, futbol eta padel jarduerak nabarmen igo dira.








Txirrindularitza praktikatzen duten biztanleen artean ere igoera handiak izan dira mendian edo igeriketan (% 54,7 eta % 30,4, hurrenez hurren), bai eta korrika, running eta ibilketa egiteko jardueretan ere (% 25,9), oro har, kirolarien artean ikusitakoarekin alderatuta.



Gizonen saioen batez besteko iraupena emakumeena baino 25 minutu luzeagoa da, batez beste.

Astero kirola egiten duten pertsonen artean, kirol-saio bakoitzak 94,8 minutuko iraupena du, batez beste. Emakumeen kirol-saioen batez besteko iraupena gizonena baino laburragoa da; emakumeen kasuan, 81,5 minutukoa da, eta gizonen kasuan, 106,9 minutukoa.


Kirola egiten duten pertsonak, kirol-jardueraren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2022 (minutuen batez bestekoa)



Kirol-saio luzeenak gazteenek (15-24 urte) eta 65 urtetik gorakoek egiten dituzte, bi kasuetan 101 minututik gora, batez beste.

Aldiz, 35-44ko adin-geruzan eskaintzen zaio denbora gutxien saio bakoitzari: 85,8 minutu.


Kirola egiten duten pertsonak, kirol-jardueraren iraupenaren eta adin-taldearen arabera. 2022 (minutuen batez bestekoa)



Antolatutako kirol-lehiaketetan parte hartzeak 15 urteko edo gehiagoko biztanleria osoaren % 10i eragiten dio, eta % 16ra igotzen da kirola egiten duten biztanleen artean.

Azken urtean kirola egin duen biztanleriaren % 16k kirol-lehiaketa antolaturen batean parte hartu du. Mota horretako ekitaldietan emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz txikiagoa da, emakumeen kasuan % 9,2koa da eta gizonen kasuan % 22koa.

Antolatutako kirol-lehiaketetako parte-hartzaileak, sexuaren arabera (biztanleria osoaren %)



Ikusten denez, adinez zenbat eta nagusiagoa izan, lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa orduan eta txikiagoa da: 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean 3 pertsonatik 1 da, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 6,2.

Antolatutako kirol-lehiaketetako parte-hartzaileak, adinaren arabera (kirola egiten duten biztanle guztiekiko %)

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai, parte hartu du	34,7	19,4	17,8	13,5	9,5	6,2
Ez du parte hartu	65,3	80,6	82,2	86,5	90,5	93,8

Lurralde historikoen artean alde esanguratsurik ez dagoen arren, Gipuzkoan daude antolatutako kirol-lehiaketetan parte-hartzaile gehien; hain zuzen ere, % 19k parte hartu dute.

Antolatutako kirol-lehiaketetako parte-hartzaileak, lurralde historikoaren arabera (kirola egiten duten biztanle guztiekiko %)


	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai, parte hartu du	13,5	19	14,7
Ez du parte hartu	86,5	81	85,3

Azken urtean kirola egin duten biztanleen % 43k aplikazio edo gailu adimendunen bat erabili dute kirola egiteko orduan. Erabilera antzekoa da bi sexuetan, gizonetzkoetan zertxobait handiagoa izanik (% 46,8) emakumezkoetan baino (% 39,8).



Kirol-jarduerari lotuta, Internet, app, web-orri, pultsometro, GPS, erloju adimendun edo antzeko aplikazioen bat erabiltzen dutenak, sexuaren arabera.

Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak



	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	46,8	39,8
Ez dut erabiltzen, baina erabil nezake	12,8	15,1
Ez dut erabiltzen eta ez nuke erabiliko	39,9	44,4
ED/EDE	0,5	0,7

Erabilera-maila altua da, guztizkoaren % 40ko kotatik gorakoa, baita adin handieneko taldeen artean ere; hala ere, 55 urtetik gorako pertsonen ehunekoa zertxobait txikiagoa da, % 38,4koa baita, eta % 33,9koa, berriz, 65 urtetik gorakoen artean.

Kirol-jarduerari lotuta, Internet, app, web-orri, pultsometro, GPS, erloju adimendun edo antzeko aplikazioen bat erabiltzen dutenak, adin-taldeen arabera.


Oinarria: Kirola egiten duten pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	41	51,2	47,7	49,1	38,4	33,9
Ez dut erabiltzen, baina erabil nezake	18,4	11,5	13,2	11,6	15,7	13,9
Ez dut erabiltzen eta ez nuke erabiliko	38,3	36,9	39,1	39	45,4	51,6
ED/EDE	2,4	0,3		0,3	0,5	0,6

### 3.- Oinez azkar ibiltzearen jarduera

Inkestak bereizita jaso du jarduera fisikoari eusteko edo hobetzeko 10 minutuz jarraian azkar samar oinez ibiltzera edo paseatzera joatea.

Lau euskal herritarretik hiru egunero ateratzen dira oinez ibiltzera, ohiko praktika gisa.



EAEko biztanleriaren % 73,4 sasoi mantentzeko edo hobetzeko 10 minutuz edo gehiagoz ateratzen da azkar samar oinez ibiltzera. Sexuen artean ez dago alde aipagarririk: emakumeen % 74,3k egiten du praktika hori, eta gizonen % 72,3k.

10 minutuz edo gehiagoz azkar samar oinez ibiltzera atera diren pertsonak, sexuaren arabera. 2022

10 minutuz azkar samar oinez ibiltzearen jarduera oso zabaldua dago EAEko adin-tarte guztietan.

Jarduera hori egiten duten pertsonen proportzioa 4 pertsonatik 3koa edo hortik gorakoa da adin-tarte guztietan, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik, adin-talde horretan dauden pertsona guztien % 65,3 baitira. Nolanahi ere, ehuneko oso garrantzitsua da, geruza horretan 80 urtetik gorako pertsonak ere sartzen baitira.

10 minutuz edo gehiagoz azkar samar oinez ibiltzera atera diren pertsonak, adin-taldearen arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	78,1	74,7	76,5	76,7	76,7	65,3
Ez	21,7	25,3	23,1	23,3	23,3	34,2
ED/EDE	0,3		0,4			0,6

Ez da alde esanguratsurik ikusten lurralde mailan oinez azkar ibiltzera irteten diren pertsonen dagokienez. Nolanahi ere, jarduera hori egiten duten pertsonen ehunekoa zertxobait txikiagoa da Araban (% 70,2); Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, puntu batzuk gorago dago (% 73,5 eta % 74,1, hurrenez hurren).




10 minutuz edo gehiagoz azkar samar oinez ibiltzera edo paseatzera atera diren pertsonak, lurralde historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	70,2	73,5	74,1
Ez	29,2	26,4	25,7
ED/EDE	0,6	0,1	0,2


Kirola egitean ikusitakoarekin alderatuta, azkar samar oinez ibiltzeko ohitura aztertzen badugu, emakumeek azkar ibiltzeko ohitura handiagoa dute gizonek baino.

Kirola egiten duten eta/edo oinez ibiltzera edo paseatzera ateratzen diren pertsonak, sexuaren arabera. 2022 (EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleria osoarekiko %)



Beste alde batetik, kirola egiteko tasa oinez ibiltzeko edo paseatzeko ohituraren gainetik dago 45 urtetik beherakoen artean, eta adin horretatik aurrera, paseatzeko edo ibiltzeko ohiturak gainditu egiten ditu kirola egiten duten pertsonen ehunekoak.

Kirola egiten duten eta/edo oinez ibiltzera edo paseatzera ateratzen diren pertsonak, adin-taldearen arabera. 2022 (EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleria osoarekiko %)




Oro har, eta bi jarduerak kontuan hartzen baditugu, hau da, kirola egitea eta 10 minutuz gutxienez azkar ibiltzea edo paseatzea, ondoriozta daiteke EAEko biztanleen % 91k kirola egiten duela eta/edo 10 minutuz oinez ibiltzera edo paseatzera irteten dela, sasoi mantentzeko edo hobetzeko.

## 4.- Lotura kirol-erakunde eta/edo -federazioekin

Euskal herritarrek kirol-klub, federazio eta patronatuekin duten lotura-maila oso adierazgarria da. Hain zuzen ere, EAEko biztanleen % 44,1 kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu da.

Kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu den biztanleria, sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	48,5	39,9
Ez	51,4	60,1
ED/EDE	0,1	



Nolanahi ere, alde nabarmenak daude sexuaren arabera. Horrela, kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu diren gizonen ehunekoa (% 48,5) handiagoa da emakumeena baino (% 39,9).

Zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta lotura handiagoa da horrelako erakundeekin. Hala, 45 urtetik beherakoen artean % 50etik gorakoa da. Aldiz, nabarmen murrizten da 55 urtetik aurrera eta, bereziki, 65 urtetik gorako pertsonen artean, horien artean % 28,8ra jaisten baita.

Kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu den biztanleria, adin-taldean arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	57,7	57,5	55,9	50,2	36,5	28,8
Ez	42,3	42,5	44,1	49,5	63,5	71,2
ED/EDE				0,3		

Emaitzak antzekoak dira Lurralde Historikoaren arabera, nahiz eta aipatzeko moduko zenbait desberdintasun ikusten diren. Araban dago lotura-mailarik handiena, biztanleen ia erdia (% 48,4) kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarteren bateko bazkide edo abonatu baita. Gipuzkoan eta Bizkaian ehuneko hori % 42,1 eta % 44 da, hurrenez hurren.


Kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu den biztanleria, Lurralde Historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	48,4	42,1	44
Ez	51,6	57,9	55,9
ED/EDE			0,1



Kirolen bat egiten duten pertsonen kolektiboa kontuan hartuta, 10 pertsonatik 6 kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarteren bateko bazkide edo abonatua da (% 59,8), eta ez da alde nabarmenik ikusten sexuaren arabera: % 59,6 eta % 60,1 emakumeak eta gizonak, hurrenez hurren.

EAEko biztanleen % 13,1ek du kirol-federazioko lizentziaren bat indarrean, eta horrelako lizentziak dituzten gizonen ehunekoa askoz handiagoa da (% 20,5) emakumeen artean baino (% 6,3) –hirukoitza baino gehiago–.



Gaur egun kirol-federazioko lizentziaren bat duten pertsonak, sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	20,5	6,3
Ez	79,4	93,7
ED/EDE	0,1	

Ikus daitekeenez, adina faktore erabakigarria da federazio-lizentzia bat indarrean izateko; izan ere, adinean aurrera egin ahala, federatuta dauden pertsonen ehunekoa gutxituz doa, 15-24 urteko pertsonen % 30,5etik 65 urtetik gorakoen % 7,5era.

Gaur egun kirol-federazioko lizentziaren bat duten pertsonak, adin-taldearen arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	30,5	17,5	11,2	14,2	9,6	7,5
Ez	69,5	82,5	88,8	85,5	90,4	92,5
ED/EDE				0,3		

Lurraldeka, Bizkaian dago federazio-lizentziaren bat indarrean duten pertsonen ehuneko txikiena (biztanleriaren % 11,8).


Gaur egun kirol-federazioko lizentziaren bat duten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	14,1	14,8	11,8
Ez	85,9	85,2	88,1
ED/EDE			0,1

## 5.- Kirol-jarduerarako motibazioak

Osasuna eta sasoiari egotea dira kirola egiteko motibazio nagusiak.

Azken urtean kirola egin duten EAEko biztanleen artean, % 30,7k osasun-arrazoiengatik edo medikuaren aginduz egin dute, % 22,4k sasoiari egoteagatik eta % 22,6k kirola gustuko dutelako.



Emakumeen artean, gehienek osasun-arrazoiengatik edo medikuaren aginduz egiten dute, % 35,1ek; gizonen artean, berriz, ehuneko hori nabarmen txikiagoa da (% 26,7). Izan ere, gizonen artean, motibazio ludikoa edo kirolak egitearekiko zaletasuna oso garrantzitsua da (% 26,8), eta emakumeen artean duten garrantzia nabarmen gainditzen du (% 17,9).

Kirola egiten duten pertsonak, kirola egiteko duten motibazioaren eta sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Ondo pasatzeko edo denbora pasatzeko	14,9	9,6
Ariketa fisikoa egiteko, sasoiari egoteko	21,5	23,4
Osasun-arrazoiengatik, medikuaren agindua	26,7	35,1
Harreman sozialagatik, lagunekin egoteagatik, norbaiti laguntzeagatik	1,6	1,1
Kirola gustatzen zaidalako	26,8	17,9
Lehiatzea gustatzen zaidalako	0,5	0,5
Erlaxatzeko, ohiko errutinatik ihes egiteko, tentsioak askatzeko	5,9	11,1
Lanbideagatik	0,6	0,5
Norbere mugak gainditzeko (erronkak)	0,3	0,4
Beste batzuk	1,1	0,5

Adin-tarteen arabera, joera desberdinak ikus daitezke. Adibidez, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen motibazio nagusia kirola gustatzen zaiela da. Aldiz, 35 urtetik aurrera kirola egiteko arrazoi nagusia osasuna da, edo medikuaren gomendioz, % 32tik gorako ehunekoarekin.

Adierazgarria da erlaxatzeko eta eguneroko monotoniatik ihes egiteko 35-44 urteko herritarrek egiten dutela kirola gehien (% 13,2).





Kirola egiten duten pertsonak, kirola egiteko duten motibazioaren eta adin-taldeen arabera. 2022


	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Ondo pasatzeko edo denbora pasatzeko	17,1	8,9	17	11,8	10,3	9,8
Ariketa fisikoa egiteko, sasoiaren egoteko	25,9	26,1	16,9	18,9	22,4	26,1
Osasun-arrazoiengatik, medikuaren agindua	13,5	24,9	32,5	37,3	37,8	32,2
Harreman sozialagatik, lagunekin egoteagatik, norbaiti laguntzeagatik	3,2	1,2	1,6	0,9	0,9	1,1
Kirola gustatzen zaidalako	29,1	25,4	17,1	19,5	21	25,9
Lehiatzea gustatzen zaidalako	2,5			0,2	0,5	
Erlaxatzeko, ohiko errutinatik ihes egiteko, tentsioak askatzeko	8,1	10,7	13,2	8,9	6,1	3,6
Lanbideagatik		0,8	0,2	1,5	0,5	
Norbere mugak gainditzeko (erronkak)		1,6	0,4	0,3		
Beste arrazoi batzuk	0,5	0,4	1,1	0,7	0,5	1,1



## 6.- Kirol-erakunde eta/edo -ikuskizunetara joatea

Kirol-ikuskizunetara joandako gehienak gizonak dira; nabarmen emakume gutxiago joaten da.

EAEko biztanleen % 46,8k adierazi du aurrez aurreko, ordainpeko eta/edo doako kirol-ikuskizunen batera joan dela azken urtean. Aitzitik, % 53,4k adierazi du ez dela ikuskizunetara joan.



Azken urtean kirol-ikuskizunen batera joan diren pertsonak, sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	56,4	37,8
Ez	43,4	62,2
ED/EDE	0,2	

Azken urtean kirol-ikuskizunetara joan diren gizonen ehunekoa nabarmen handiagoa da emakumeena baino. Hala, aurten, aurrez aurreko kirol-ikuskizunen batera joan dira gizonen % 56,4. Aldiz, emakumeen artean ehuneko hori ia 20 puntu jaitsi da, % 37,8ra iritsi arte.

Azken urtean kirol-ikuskizunetara joan diren gehiengoak 55 urtetik beherakoak dira; hain zuzen ere, asistentzia-ehuneko handiena 35-44 urtekoen artean lortu da (% 62,1). Aitzitik, 55 urtetik aurrera murriztu egin da kirol-ikuskizun batera azken urtean joan diren pertsonen kolektiboa. Hala, % 40ra iritsi da 55-64 urtekoen artean, eta % 31ra 64 urtetik gorakoen artean, adin-tarte guztietako baliorik txikiena izanik.

Azken urtean kirol-ikuskizunen batera joan diren pertsonak, adin-taldearen arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	56,6	52,8	62,1	56,6	40	31
Ez	43,4	46,6	37,5	43,4	60	69
ED/EDE		0,5	0,4			

Ez da alde nabarmenik ikusten kirol-ikuskizunetarako asistentzia-mailari dagokionez, bizi diren lurralde historikoaren arabera. Nolanahi ere, Gipuzkoan zertxobait handiagoa da azken urtean kirol-ikuskizun batera joan diren biztanleen ehunekoa (% 48), eta Araban zertxobait txikiagoa da (% 45).



Azken urtean kirol-ikuskizunen batera joan diren pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	45,0	48,0	46,5
Ez	55,0	52,0	53,3
ED/EDE			0,2

Kirol-ikuskizunetara joaten diren gehienak taldeko kirolekin eta kirol profesionalekin lotutako ekitaldietan biltzen dira.

Azken urtean kirol-ekitaldiren batean parte hartu duten 4 pertsonatik 3 inguru (% 72,2) taldeko kirol profesionalekin lotutako ekitaldietara joan dira. Futbol-partidetara joan direnek eragin dute, neurri handi batean, emaitza hori.



Nahiko urrun daude gainerako kirol-ekitaldiak. Horien artean azpimarratzekoa da eskola kirolaren inguruan antolatzen diren partida eta ekitaldien garrantzia (% 17,5), baita herri kirol edo ekitaldiena ere (% 14,4).

Gizonek taldeko kirolekin lotutako ekitaldietara joateko joera handiagoa dute (% 78,6), emakumeen asistentzia-maila baino 15 puntu handiagoa (% 63,4). Aipagarria da, halaber, Eskola Kirolaren inguruan antolatzen diren jarduera eta ekitaldietara emakumeak gehiago joaten direla; izan ere, % 22,3 dira emakumeak, gizonen kasuan ikusten dena baino 8 puntu gehiago.

Azken urtean kirol-ikuskizun batera joan diren pertsonak, joandako kirol-ikuskizunaren eta sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Taldeko kirola, baloiarekin, pilotarekin,...	78,6	63,4
Banakako kirola: tenisa, padela, golfa, boxeoa, borroka...	13,4	8,7
Txirrindularitza, automobilismoa, motoziklismoa,...	18,3	7,6
Uretako kirola	8,4	11,3
Atletismoa, runninga, gimnasia...	9,1	10,4
Profesionala ez den kirol amateurra	10,8	4,7
Eskola-kirola	14,1	22,3
Herri-ekitaldia	14,9	13,8



Taldeko kirolekin eta kirol profesionalekin lotutako kirol-ekitaldietara joatea oso antzekoa da adin-talde guztietan; 35-44 urtekoen kasuan (% 67,1) eta 64 urtetik gorakoek kasuan (% 66,7) soilik dago % 70etik behera (normalean ekitaldiren batera joaten diren pertsonen artean).

Logikoa denez, eskola kirol jardueretarako eta ekitaldietarako asistentzia 35-55 urte bitarteko biztanleria-taldeetan kontzentratzen da (% 27), baina 64 urtetik gorako pertsonen kasuan ere esanguratsua da. (% 18,8)

Azken urtean kirol-ikuskizun batera joan diren pertsonak, joandako kirol-ikuskizunaren eta adin-taldearen arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Taldeko kirola, baloiarekin, pilotarekin,...	76,4	72,5	67,1	75,3	77,6	66,7
Banakako kirola: tenisa, padela, golfa, boxeoa, borroka...	19,6	15,8	8,2	11,8	8,3	8,2
Txirrindularitza, automobilismoa, motoziklismoa,...	13,8	18,5	16,8	9,2	13,8	13,4
Uretako kirola	9,7	9,6	11,3	8,5	9,7	9,2
Atletismoa, runninga, gimnasia...	9,2	6,5	11,7	10,6	13,9	5,4
Profesionala ez den kirol amateurra	11,1	10,5	9,2	8	4,9	6,5
Eskola-kirola	7,3	3,3	27,8	27,6	7,5	18,8
Herri-ekitaldia	11	16,2	22,5	10	15,4	12,1

Taldeko kirol profesionalekin lotutako kirol-ikuskizunetarako asistentzia oso antzekoa da hiru lurralde historikoetan. Haietara joaten den biztanleriaren ehunekoa % 70 ingurukoa da –azken urtean kirol-ekitaldiren batera joan den kolektiboaren artean–. Aldiz, bertaratzen diren biztanleen ehuneko txikiagoa dute beste ikuskizun edo ekitaldi batzuek desberdintasun nabarmenagoak dituzte lurraldeen artean. Horren adibide da Eskola Kirola: Araban, biztanleen % 22 joaten da kirol-ikuskizunen batera, Bizkaian eta Gipuzkoan ikusitakoa baino 6 puntu gehiago.

Era berean, Gipuzkoan nabarmen handiagoa da herri-kiroletara joaten direnen kopurua; izan ere, azken urtean ikuskizunen batera joaten diren lau pertsonatik batek adierazi du horrelako kirol-ekitaldietara joan dela. Bizkaian eta Araban proportzio hori % 10 ingurukoa da.

Azken urtean kirol-ikuskizun batera joan diren pertsonak, joandako kirol-ikuskizunaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Taldeko kirola, baloiarekin, pilotarekin...	71,8	69,8	73,9
Banakako kirola: tenisa, padela, golfa, boxeoa, borroka...	11,8	12,9	10,3
Txirrindularitza, automobilismoa, motoziklismoa...	13	15,6	12,9
Uretako kirola	4	13,7	8,5
Atletismoa, runninga, gimnasia...	11,8	12,4	7,2
Profesionala ez den kirol amateurra	9,3	10,4	6,5
Eskola-kirola	24,7	16	16,5
Herri-ekitaldia	12,7	22,1	10




Kirol-ikuskizunetarako asistentzia, 5 kasutik 4tan, taldeko kirol profesioaletan ordainpeko ekitaldiekin lotzen da; gainerako ekitaldietan, berriz, doakotasuna da nagusi.

Taldeko kirol profesionalen kasuan, ordainpeko ekitaldietara joatea da nagusi; hala adierazi dute inkestatutako pertsonen % 78,8k.

Gainerako kasuetan, aldiz, doako ekitaldietara joatea da nagusi, banakako kirol-ekitaldien kasuan izan ezik, hala nola teniseari, golfeari edo boxeolari; izan ere, horrelako ekitaldietara joan direla adierazi duten pertsonen % 54k adierazi du ordainpeko modalitatearen bidez joan dela.

Azken urtean kirol-ekitaldiren batera joan diren pertsonak, sarrera-motaren arabera. 2022




Sexuaren arabera, ez da alde nabarmenik ikusten sarrera eskuratzeko modalitatean, taldeko kirolen kasuan izan ezik. Izan ere, kasu horretan, ordainpeko ekitaldietara joatea oso nagusi da gizonen artean (% 84), eta emakumeen artean, aldiz, % 69ra jaisten da.

Azken urtean kirol-ekitaldiren batera joan diren pertsonak, sarrera-motaren eta sexuaren arabera. 2022

	DOAKOA		ORDAINPEKOA	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Taldeko kirola, baloiarekin, pilotarekin...	15,6	30,9	84,4	69,1
Banakako kirola: tenisa, padela, golfa, boxeo, borroka...	45,2	45,5	54,8	54,5
Txirrindularitza, automobilismoa, motoziklismoa...	85,2	89,6	14,8	10,4
Uretako kirola	90,7	93,9	9,3	6,1
Atletismoa, runninga, gimnasia...	93,3	89,8	6,7	10,2
Profesionala ez den kirol amateurra	93,4	92	6,6	8,0
Eskola-kirola	94,9	97,6	5,1	2,4
Herri-ekitaldia	85,6	82,3	14,4	17,7



Inkestak ikertu du zergatik ez diren bertaratzen herritarrak kirol-ikuskizun batera. Ikuskizun gisa kirolarekiko interesik ez izatea da arrazoi nagusia kasuen ia erdietan (% 45), jarraian, bertaratzerik ez izatea, eta, ondoren, ekitaldi horietara joateko denbora librerik ez izatea (% 12). Ondoren, garrantziaren arabera eta distantzia laburrera, ikuskizun horiek telebistaz edo Internetez ikustea nahiago dutenak daude, baita beste zeregin batzuekin bateraezinak diren asteko ordutegi eta egunetan jokatzeagatik joaten ez direnak ere; hala adierazi dute aurrez aurreko kirol-ikuskizunetara joaten ez diren biztanleen % 11,5ek.



Interes falta hori nabarmen handiagoa da emakumeen artean (hala adierazten du ekitaldira joan ez direnen % 51k) gizonen artean baino (% 38).

Azken urtean aurrez aurreko kirol-ekitaldiak ikustera joan ez izanaren arrazoi nagusiak, sexuaren arabera. 2022

Oinarria: azken urtean kirol-ikuskizunak ikustera joan ez diren pertsonak

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Prezioa	6,2	4,6
Ikuskizun hauek masifikatuta daude eta testuinguru sanitario honetan ez dut parte hartu nahi	7,4	4
Nahiago dut telebistan, Interneten eta abarretan ikusi.	17,1	8
Ez daukat denbora librerik ikustera joateko	14,6	10,3
Ez dut norekin joanik	1,1	1,9
Interesatzen zaidan kirola niretzat bateraezina den asteko ordutegian eta/edo egunean eskaintzen da	9,3	13,2
Ez dago kirol-eskaintzarik nire ingurunean	3,1	1,4
Ez zait kirola ikuskizun gisa interesatzen	38,1	51,1
Ez dut kirolaz ulertzen	0,8	3
Beste batzuk	2,5	2,6



Aldiz, adinaren arabera, ez dirudi korrelaziorik dagoenik horrelako kirol-ekitaldietara joateko interes faltari dagokionez.

Horrela, kirol-ekitaldietara joaten ez diren 10 pertsonatik 4k, gutxienez, kirol-ikuskizunetarako interes urria adierazi dute adin-talde guztietan. Nolanahi ere, 35-44 urteko adin-taldean dago interes-falta hori erakusten duten pertsonen proportzio handiena (% 50).

Hala ere, badira adinarekin nolabaiteko korrelazioa erakusten duten beste motibo batzuk. Horrela, ekitaldi horietara joaten ez diren 44 urtetik beherako pertsonen artean, handiagoa da horretarako denborarik ez izateagatik joaten ez direnen ehunekoa (% 20-26k hala adierazten dute). 45 urtetik aurrera, faktore horrek nabarmen egiten du behera, eta 64 urtetik gorakoan % 4koa da.

Azken urtean aurrez aurreko kirol-ekitaldiak ikustera joan ez izanaren arrazoi nagusiak, eta adin-taldean arabera. 2022

Oinarria: azken urtean kirol-ikuskizunak ikustera joan ez diren pertsonak

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Prezioa	7	11,5	6,4	5,8	4,5	3,1
Ikuskizun hauek masifikatuta daude eta testuinguru sanitario honetan ez dut parte hartu nahi		2,2	4	4,6	6	7,6
Nahiago dut telebistan, Interneten eta abarretan ikusi.	5,9	3,5	1,4	9,1	12,4	18,1
Ez daukat denbora librerik ikustera joateko	20,8	26,4	24,4	12,7	9,5	4,1
Ez dut norekin joanik		1,8	0,9	1	1,3	2,4
Interesatzan zaidan kirola niretzat bateraezina den asteko ordutegian eta/edo egunean eskaintzen da	11,3	8,1	7,9	14,1	13,3	11,7
Ez dago kirol-eskaintzarik nire ingurunean	5,1	4,1	2,5	0,3	2,3	1,2
Ez zait kirola ikuskizun gisa interesatzan	43,7	40,4	50	48	45,7	46
Ez dut kirolaz ulertzen	2,5	1,1	1,6	1,2	1,2	3,3
Beste batzuk	3,7	0,8	0,9	3,1	3,7	2,3

Lurraldeka, ia ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten ekitaldi horietara joaten ez diren pertsonen artean, zergatik ez diren joaten azaltzeko orduan. Ordutegi edo egun desegokian eskaintzeari lotutako arrazoiaren kasuan soilik ikusten da alde esanguratsua hiru lurraldeen artean: Gipuzkoan du garrantzi handiena, % 14,6; Araban eta Bizkaian, aldiz, % 7,4 eta % 11,1, hurrenez hurren.




Azken urtean aurrez aurreko kirol-ekitaldiak ikustera joan ez izanaren arrazoi nagusiak, Lurralde Historikoaren arabera. 2022

Oinarria: azken urtean kirol-ikuskizunak ikustera joan ez diren pertsonak

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Prezioa	3,6	3,7	6,6
Ikuskizun hauek masifikatuta daude eta testuinguru sanitario honetan ez dut parte hartu nahi	5,1	6,9	4,5
Nahiago dut telebistan, Interneten eta abarretan ikusi.	11,4	11,2	11,8
Ez daukat denbora librerik ikustera joateko	14,9	11,7	11,4
Ez dut norekin joanik	2,1	2,3	1
Interesatzen zaidan kirola niretzat bateraezina den asteko ordutegian eta/edo egunean eskaintzen da	7,4	14,6	11,1
Ez dago kirol-eskaintzarik nire ingurunean	4,1	2,4	1,2
Ez zait kirola ikuskizun gisa interesatzen	47,5	43,5	47
Ez dut kirolaz ulertzen	1,5	1,7	2,6
Beste batzuk	2,5	2	2,9

EAEko hiru pertsonatik bik komunikabideen eta Interneten bidez jasotzen dute kirolari buruzko informazioa.

EAEko biztanleen % 68k prentsaren, telebistaren, Interneten, irratia eta abarren bidez jasotzen du kirolari buruzko informazioa. Hala ere, alde handia nabari da sexuaren arabera. Gizonen kasuan, gehienek (% 82) komunikabide horien bidez jasotzen dute kirolari buruzko informazioa. Emakumeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 54,7ra jaisten da.




Kirolaren inguruko informazioa prentsaren, telebistaren, Interneten edo irratia bidez jasotzen duten pertsonak, sexuaren arabera 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	82	54,7
Ez	17,8	44,6
ED/EDE	0,1	0,7

Telebista (kirolaren berri duten pertsonen % 43) eta Internet (% 26) dira pertsona horiek gehien erabiltzen dituzten bitartekoak. Prentsa % 19 baino ez du lortzen, prentsa orokorra eta/edo kirol-prentsa barne.

Adierazi kirolaz informatzeko erabiltzen dituzun informazio-baliabide nagusiak

Oinarria: Komunikabideen eta Interneten bidez kirolari buruzko informazioa jasotzen duen biztanleria



	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Prentsa orokorra	16,3	11,2
Kirol-prentsa	6,8	3
Irratia	7,7	5,8
Telebista	35,6	54,6
Internetetik	30,6	19,5
Sare sozialak	2,9	4,6
Beste baliabide batzuk	0,1	1,3





Era berean, adinean gora egin ahala, komunikabideen eta Interneten bidez kirolari buruzko informazioa jasotzen duten pertsonen proportzioa handiagoa da, nahiz eta adin-talde guztietan kolektibo bakoitzeko pertsonen % 50 baino askoz gehiago izan. Horrela, 55 urtetik gorakoen artean, 10 pertsonatik 7k baino gehiagok adierazten dute bitarteko horien bidez jasotzen dutela informazioa.

Internet da 45 urtetik beherakoentzako informazio-bide nagusia; adin horretatik aurrera, telebistak eta prentsa orokorrak eta kirol-prentsak garrantzi handiagoa dute.

Kirolaren inguruko informazioa prentsaren, telebistaren, Interneten edo irratia bidez jasotzen duten pertsonak, adin-taldean arabera 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	59,5	66,5	58	68,4	74,5	72,1
Ez	40,5	33,3	42	31,1	25,3	26,9
ED/EDE		0,3		0,5	0,2	1,1

Adierazi kirolaz informatzeko erabiltzen dituzun informazio-baliabide nagusiak

Oinarria: Komunikabideen eta Interneten bidez kirolari buruzko informazioa jasotzen duen biztanleria

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Prensa orokorra	4,1	11,3	13,5	15,6	19,3	14,7
Kirol-prentsa	3,9	5,3	6,2	5,1	3,3	6,3
Irratia	1,7	1,7	6,5	7,1	9,7	8,5
Telebista	24,7	23,6	31,2	39,3	46,6	61,6
Internetetik	46,4	49,6	37,4	30,1	19,7	8,7
Sare sozialak	18,1	7,7	4,8	2,1	0,7	0,1
Beste baliabide batzuk	1,1	0,7	0,6	0,7	0,7	0,1

Azkenik, ez dago alderik hiru lurraldeetan kirolari buruzko informazioa jasotzen duten pertsonen proportzioan, % 66tik % 68ra bitarteko tartean baitaude hiru lurraldeetan. Informatzeko erabilitako baliabideei dagokienez, alde txiki bat baino ez dago telebistaren kasuan, neurri handiagoan erabiltzen baita Gipuzkoan (% 46) eta Bizkaian (% 43), eta gutxiago Araban (% 36).

Kirolaren inguruko informazioa prentsaren, telebistaren, Interneten edo irratia bidez jasotzen duten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	67,1	66,5	68,9
Ez	31,8	33,1	30,8
ED/EDE	1,1	0,4	0,3

Adierazi kirolaz informatzeko erabiltzen dituzun informazio-baliabide nagusiak

Oinarria: Komunikabideen eta Interneten bidez kirolari buruzko informazioa jasotzen duen biztanleria

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Prensa orokorra	14	13,3	14,8
Kirol-prentsa	6,4	4,9	5
Irratia	7,9	6,9	6,6
Telebista	36,3	46,6	43,7
Internetetik	29,5	24,9	25,6
Sare sozialak	5,6	2,9	3,5
Beste baliabide batzuk	0,3	0,4	0,8

## 7.- Egindako jarduera fisikoaren balorazioa eta Administrazioak jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko duen eginkizuna



Inkesta egindako pertsonen erdiaren baino gehiagoren ustez (% 54,7), egiten duten jarduera fisikoa nahikoa da. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da egokia litzatekeen jarduera fisikoa ez dutela egiten uste dutenen taldea; euskal herritarren % 43 litzateke.

Sexuaren arabera, egindako jarduera fisikoaren mailarekiko gogobetetze-maila oso desberdina da. Gizonek (% 60,8) emakumeek (% 49,2) baino neurri handiagoan uste dute nahikoa jarduera fisiko egiten dutela. Hain zuzen ere, emakumeen % 48 ez dago gustura egindako jarduera fisikoaren mailarekin.

Biztanleriak egiten duen jarduera fisikoaren balorazio maila, nahikoa den ala ez, sexuaren arabera 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Nahikoa da	60,8	49,2
Ez da nahikoa	37,4	48,5
ED/EDE	1,7	2,3

Adierazgarria da egiaztatzea gazteenek (15-24 urte) eta zaharrenek (64 urtetik gorakoek) uste dutela jarduera fisiko nahikoa egiten dutela.

Aldiz, 35-44 urteko pertsona gehienek (% 56,6) uste dute ez dutela nahikoa jarduera fisiko egiten, eta proportzio hori ere handia da 45-54 urtekoen artean (% 50,7) eta 55-64 urtekoen artean (% 48,3)

Biztanleriak egiten duen jarduera fisikoaren balorazio maila, nahikoa den ala ez, adin-taldeen arabera 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Nahikoa da	60,7	56,2	42,4	47,9	50,8	64,9
Ez da nahikoa	38,2	43,4	56,6	50,7	48,3	30,5
ED/EDE	1,2	0,4	1	1,4	0,9	4,6




Lurralde mailan ez da ia alde adierazgarririk ikusten, eta nahikoa jarduera fisiko egiten dutela uste dutenen ehunekoa zertxobait handiagoa da Gipuzkoan (% 57), Arabarekin (% 55,3) eta Bizkaiarekin (% 53,1) alderatuta.

Biztanleriak egiten duen jarduera fisikoaren balorazio maila, nahikoa den ala ez, Lurralde Historikoaren arabera, 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Nahikoa da	55,3	57,2	53,1
Ez da nahikoa	42,3	40,9	44,8
ED/EDE	2,4	1,8	2,1

Egun nahikoa jarduera fisiko egiten ez duten pertsona gehienei gehiago egitea gustatuko litzaieke.

Hori adierazi dute nahikoa jarduera fisiko ez dutela egiten adierazi duten 10 pertsonatetik 9k. Emaizta oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean.



Jarduera fisiko nahikoa ez dutela egiten uste duten eta gaur egun egiten dutena baino jarduera fisiko gehiago egitea gustatuko litzaiekeen pertsonak, sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai	91,7	91
Ez	7,6	8,8
ED/EDE	0,7	0,2

Horrela, jarduera fisiko nahikoa ez dutela egiten adierazi duten pertsonengan arreta jarrita, adin-tarte guztietan jarduera fisiko gehiago egitea gustatuko litzaiekeela adierazi duten pertsonen ehunekoa % 90etik gorakoa da. 64 urtetik gorakoen kasuan soilik ikusten da egiten dutena baino jarduera fisiko gehiago egin beharrik ez luketela uste duten pertsonen gutxiengo adierazgarri bat (% 18,3), nahiz eta biztanleria gehienak uste duen jarduera handitu beharko lukeela.

Jarduera fisiko nahikoa ez dutela egiten uste duten eta gaur egun egiten dutena baino jarduera fisiko gehiago egitea gustatuko litzaiekeen pertsonak, adin-taldean arabera. 2022


	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	95	96,1	98,9	91,4	89,7	81,4
Ez	5	3,9	1,1	7,4	9,7	18,3
ED/EDE				1,1	0,5	0,3



Euskadiko biztanleriak ehuneko 10 puntu murriztu du jarduera fisikoa COVID19aren aurreko aldiarekin alderatuta.

Inkesta egin zaien pertsonen % 55ek adierazi du jarduera fisikoa berbera egiten duela orain eta pandemiaren aurretik, eta ehuneko hori zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 56,4) emakumeen artean baino (% 53,9).

Hala ere, adierazgarria da ikustea pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta jarduera fisikoa handitu duten pertsonen ehunekoa (% 16,9) txikiagoa dela jarduera murriztu dutenena baino (% 27,4). Ahalduntze hori, gizon eta emakumeen artean komuna den arren, zertxobait areagotu da gizonen artean.



Pandemiaren aurretik gaur egun baino jarduera fisiko gehiago edo gutxiago egiten zuten biztanleen ehunekoa, sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Lehen orain baino askoz gehiago	3,9	4,2
Lehen orain baino gehiago	23,1	23,4
Berdin	56,4	53,9
Lehen orain baino gutxiago	14	14,5
Lehen orain baino askoz gutxiago	1,8	3,3
ED/EDE	0,8	0,6

Hala eta guztiz ere, jarduera fisikoaren beherakada hori ez da adin-tarte guztietan komuna. Adin-tarte hauetan ez da gertatu:

- 25 eta 34 urte arteko pertsonen artean; hain zuzen ere, beren jarduera zertxobait handitu egin dute.
- Eta, bereziki, 15-24 urteko pertsonen artean; % 36k uste du orain jarduera fisiko gehiago egiten duela pandemiaren aurretik baino, eta % 27,1en ustez berriz, pandemia aurretik jarduera fisiko gehiago egiten zuen orain baino.

Gainerako adin-tarteetan, jarduera fisikoa murriztu duen biztanleria kopurua handiagoa da jarduera fisikoa handitu duena baino, eta bereizgarri hori handiagoa da adinez nagusiagoko pertsonen artean. Horien artean, pandemiak geroztik gutxiengo txiki batek areagotu du jarduera, % 12,9k baino ez 55-64 urtekoen artean, eta % 7,3k 64 urtetik gorakoen artean; aldiz, % 25,1 eta % 29,1 ziren gaur egun baino jarduera gehiago egiten zutenak.



Pandemiaren aurretik gaur egun baino jarduera fisiko gehiago edo gutxiago egiten zuten biztanleen ehunekoa, adin-taldean arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Lehen orain baino askoz gehiago	4,1	1,7	5,3	4,5	5,1	3,4
Lehen orain baino gehiago	23	24,8	24,5	20,8	20	25,7
Berdin	37,1	45,1	49,3	58,6	61,4	62,5
Lehen orain baino gutxiago	31,6	24,5	17,7	13	10,1	5,7
Lehen orain baino askoz gutxiago	4,3	3,5	1,8	3,1	2,8	1,6
ED/EDE		0,5	1,4		0,6	1,2

Lurralde historikoen artean ez dago ia alderik: pandemiarekin alderatuta jarduera fisikoa mantendu duten pertsonen proportzioa Euskadiko batez bestekoaren oso antzekoa da, baita ugaritu dutenen eta murriztu dutenen proportzioa ere.

Pandemiaren aurretik gaur egun baino jarduera fisiko gehiago edo gutxiago egiten zuten biztanleen ehunekoa, Lurralde Historikoen arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Lehen orain baino askoz gehiago	3,1	3,4	4,7
Lehen orain baino gehiago	24,1	23,8	22,7
Berdin	55,6	56,1	54,4
Lehen orain baino gutxiago	14,3	14,5	14,1
Lehen orain baino askoz gutxiago	2,1	2	3,1
ED/EDE	0,8	0,1	1

**Euskal herritarrek kirolarekiko erakusten duten batez besteko interesa handia da.**

Kirolak euskal herritarren artean pizten duen interesa, batez beste, 7,1ekoa da 0tik 10era bitarteko eskalan; eskala horretan, 0k ez du inolako interesik eta 10ek interes handia adierazten du. Hala ere, sexuaren araberako bereizgarri txiki bat ikusten da: gizonen interes handiagoa dute batez beste (7,6) emakumeek baino (6,7).

Horrez gain, kirola egiteko batez besteko interesa ere maila adierazgarrian dago (6,8 batez beste), eta gizonen artean ere zertxobait handiagoa da (7,1) emakumeen artean baino (6,6).


Aitzitik, kirol-ekitaldietara joateak interes-maila txikiagoa du, 4,6ko batez bestekoa 0tik 10era bitarteko eskalan, eta kasu horretan zertxobait handiagoa da gizonen (5,3) eta emakumeen (4,0) arteko aldea.

Aparteko aipamena eskatzen du gurasoek seme-alabek kirolen bat egin dezaten duten interes maila altuak. 8,3ko tasara iristen da eta antzekoa da aiten (8,1) eta amen (8,4) artean.



Kirolarekiko duten interes-mailaren arabera biztanleriaren batez besteko balorazioa, (Otik 10era bitarteko eskalan egindako balorazioa), sexuaren arabera. 2022

Oinarria: A, B eta C Biztanleria guztia // D Kargupean seme-alabak dituen biztanleria bakarrik



Kirolarekiko interes-maila oso antzekoa da adinaren arabera, batez besteko 7 puntuko kotan kokatzen da edo pixka bat gainditzen du, 65 urtetik gorakoen artean izan ezik, non pixka bat murrizten den.

Joera hori bera ikusten da kirol-jardueraren kasuan, baina puntuazio txikixeagoa adin-tarte guztietan.

Hala ere, kirol-ekitaldietara joateari buruzko balorazioaren kasuan, adinaren araberrako aldeak nabarmenagoak dira, interesa nabarmen murrizten baita adinak gora egin ahala, eta, bereziki, 55 urtetik aurrera. Hala, batez besteko interesak 6 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen du gazteenen artean, eta 64 urtetik gorakoen artean 3 puntuko batez besteko balioa ozta-ozta gainditzen du.

Kirolarekiko duten interes-mailaren arabera biztanleriaren batez besteko balorazioa (Otik 10era bitarteko eskalan egindako balorazioa), adin-taldearen arabera. 2022

Oinarria: A, B eta C Biztanleria guztia // D Kargupean seme-alabak dituen biztanleria bakarrik

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
a) Kirola, oro har	7,6	7,8	7,2	7,3	7,0	6,5
b) Kirola egitea/jarduera fisikoa egitea	7,8	7,9	7,2	6,9	6,4	6,0
c) Kirol-ikuskizunetan parte hartzea	6,0	5,7	5,4	5,2	4,3	3,1
<b>Oinarria Kargupean seme-alabak ditu</b>						
d) Seme-alabek kirola egitea	8,1	8,7	8,7	8,5	7,6	5,6



Beste behin ere, ia ez dago alderik lurralde historikoaren arabera, eta ia berdina dira gipuzkoarrek, bizkaitarrek eta arabarrek erakutsitako interes-maila guztiak.

Kirolarekiko duten interes-mailaren arabera biztanleriaren batez besteko balorazioa (0tik 10era bitarteko eskalan egindako balorazioa), Lurralde Historikoaren arabera. 2022

Oinarria: A, B eta C Biztanleria guztia // D Kargupean seme-alabak dituen biztanleria bakarrik

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
a) Kirola, oro har	7,1	7,1	7,1
b) Kirola egitea/jarduera fisikoa egitea	6,9	6,8	6,8
c) Kirol-ikuskizunetan parte hartzea	4,7	4,5	4,7
<b>Oinarria Kargupean seme-alabak ditu</b>	<b>8,4</b>	<b>8,2</b>	<b>8,3</b>
d) Seme-alabek kirola egitea	7,1	7,1	7,1

Azkenik, inkesta egindako pertsonen erdiek baino gehiagok administrazio publikoek jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko garatu beharreko neurriak identifikatzen ez duten arren, erantzun hori nabarmen aldatzen da adinaren arabera.

Administrazio publikoek jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko egin dezaketinari buruz pertsonen duten iritzia, sexuaren arabera. 2022

	GUZTIRA	SEXUA	
		Gizonak	Emakumeak
Kiroldegietako, gimnasioetako eta abarretako prezioak jaitea.	14,2	11,1	17,2
Kirola egiteko ikastetxeak zabaltzea, aire zabaleko kirola egiteko gune gehiago zabaltzea, bidegorriak eta abar, edo gune horiek hobetzea.	4,1	6,2	2,1
Ordutegiak zabaltzea, kiroldegia	0,8	0,5	1
Kiroldegietan eta gimnasioetan instalazioak zabaltzea eta hobetzea, kiroldegietako plaza kopurua ugartzea	6,5	7,5	5,6
Kirola egitea sustatu, horren gainean informatu eta animatu	9,0	11,1	7
Laguntza ekonomikoak kiroldegiari, federazioei; dirulaguntzak	1,9	1,9	1,9
Kirola egiteko lan-kontziliazioa	2,2	2,2	2,2
Kirol gutxituei laguntzea	1,9	2,4	1,4
Begirale gehiago eta prestakuntza gehiago dutenak.	0,3	0,3	0,3
Adineko pertsonen kirol-praktikan babestu eta laguntzea	0,8	0,7	0,9
Kirol-ekimenak, programak, jarduerak eta ikastaroak sortzea	2,7	2,5	2,9
Laguntza ekonomikoak, dirulaguntzak	1,5	1,8	1,2
Kiroldegietara sartzeko logistika	0,1	0,1	
Errepideak hobetzea	0,1	0,1	0,1
Beste batzuk	1,3	1,6	1
Ez dago ezer esateko	52,7	50	55,2

Horrela, 55 urtetik gorako pertsonen erdiek baino gehiagok uste dute ez dela beharrezkoa inolako neurriak aplikatzea, eta adinak behera egin ahala, jarrerak propositiboagoak edo kritikagoak dira, eta, bereziki, gazteen artean.

Modu zehatzagoan, 15 eta 34 urte arteko pertsonen % 21en ustez, beharrezkoa da kiroldegietako eta gimnasioetako prezioak jaitea. Ehuneko hori % 18an kokatzen da adin ertaineko (35 eta 54 urte artean) pertsonen artean eta adin horretatik aurrera behera egiten du.

Kirola sustatzea, informatzea eta animatzea interesgarri dela uste duten 15-24 urteko gazteen ehuneko ere handia da (adin-tarte horretako % 22), baina 35 urtetik aurrera nabarmen egiten du behera.



Administrazio publikoek jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko egin dezaketinari buruz pertsonen duten iritzia, adin-taldean arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Kiroldegietako, gimnasioetako eta abarretako prezioak jaitea.	21	21,1	17,7	17,1	11,6	7,3
Kirola egiteko ikastetxeak zabaltzea, aire zabaleko kirola egiteko gune gehiago zabaltzea, bidegorriak eta abar, edo gune horiek hobetzea.	5,4	6,4	4,1	4,6	4,8	1,9
Ordutegiak zabaltzea, kiroldegia	0,3	1,5	2	0,7	0,4	0,4
Kiroldegietan eta gimnasioetan instalazioak zabaltzea eta hobetzea, kiroldegietako plaza kopurua ugaritzea	5,3	7,9	9,3	9,2	7,6	2,7
Kirola egitea sustatu, horren gainean informatu eta animatu	22	14,7	7,6	8,2	6,8	4,6
Laguntza ekonomikoak kiroldegiei, federazioei; dirulaguntzak	2,1	2,7	3,9	1	2,2	0,8
Kirola egiteko lan-kontziliazioa	0,4	2,2	6,9	4,9	0,3	
Kirol gutxituei laguntzea	2,5	2,6	2	1,4	2,4	1,3
Begirale gehiago eta prestakuntza gehiago dutenak.	0,4	0,5		0,5	0,4	0,2
Adineko pertsonen kirol-praktikan babestu eta laguntzea			0,4		0,7	2,2
Kirol-ekimenak, programak, jarduerak eta ikastaroak sortzea	6,2	5,4	4,9	0,9	2,6	0,6
Laguntza ekonomikoak, dirulaguntzak	1	1,1	1,6	2,7	2,4	0,6
Kiroldegietara sartzeko logistika						0,2
Errepideak hobetzea		0,5				0,2
Beste batzuk	0,5	0,5	1	1,5	1,9	1,4
Ez dago ezer esateko	32,9	33,1	38,7	47,3	56	75,6

Gipuzkoarrek (% 16) eta bizkaitarrek (% 14,3) uste dute beharrezkoa dela kiroldegien eta gimnasioen prezioak jaitea; arabarrek (% 10) baino bizkaitar eta gipuzkoar gehiagok uste dute hori; nolana ere, hiru lurraldeetan, gehiengoak uste du ez dagoela neurri zehatzik aplikatu beharrik.

Administrazio publikoek jarduera fisiko gehiago egiten laguntzeko egin dezaketinari buruz pertsonen duten iritzia, lurralde historikoaren arabera. 2022


	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Kiroldegietako, gimnasioetako eta abarretako prezioak jaitea.	10,3	16	14,3
Kirola egiteko ikastetxeak zabaltzea, aire zabaleko kirola egiteko gune gehiago zabaltzea, bidegorriak eta abar, edo gune horiek hobetzea.	2,7	3,4	4,9
Ordutegiak zabaltzea, kiroldegia	0,8	0,8	0,8
Kiroldegietan eta gimnasioetan instalazioak zabaltzea eta hobetzea, kiroldegietako plaza kopurua ugaritzea	6,3	5,8	7
Kirola egitea sustatu, horren gainean informatu eta animatu	8,2	8,9	9,2
Laguntza ekonomikoak kiroldegiei, federazioei; dirulaguntzak	1,8	1,5	2,2
Kirola egiteko lan-kontziliazioa	4,2	2,1	1,7
Kirol gutxituei laguntzea	2,6	1,9	1,6
Begirale gehiago eta prestakuntza gehiago dutenak.	0,2	0,4	0,3
Adineko pertsonen kirol-praktikan babestu eta laguntzea	0,4	0,4	1,1
Kirol-ekimenak, programak, jarduerak eta ikastaroak sortzea	3,8	2,8	2,4
Laguntza ekonomikoak, dirulaguntzak	0,7	1,2	1,9
Kiroldegietara sartzeko logistika			0,1
Errepideak hobetzea			0,2
Beste batzuk	2,5	0,5	1,4
Ez dago ezer esateko	55,4	54,3	50,9



## 8.- Herritarrek euskal kirol-selekzioen aurrean duten jarrera

EAEko biztanleriaren gehiengo zabal bat euskal futbol-selekzioak partida ofizialak jokatzearen alde agertu da.

EAEko biztanleriaren % 77,7 euskal futbol-selekzioak partida ofizialak jokatzearen alde dago, eta babes hori oso antzekoa da emakumeen eta gizonen artean. % 1 baino gutxiago dago guztiz kontra eta % 13,9ri ez zaio ez ondo, ez gaizki iruditzen.




Biztanleriaren banaketa, Euskadin nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzen duten euskal kirol-selekzioak Euskadiren ordezkari gisa egotearen gainean duten iritzia eta sexuaren arabera 2022

	SEXUA	
	Gizonak	Emakumeak
Oso ondo	51,3	50,2
Ondo	25	28,9
Ez ondo, ez gaizki	15,7	12,3
Gaizki	1,6	0,6
Oso gaizki	0,6	0,5
ED/EDE	5,8	7,4

Adin-tarte guztietan ikusten da euskal futbol-selekzioaren ofizialtasuna babesten duen gehiengo zabala; adinaren arabera ia ez dago alderik. Kasu guztietan, adin guztietako 4 euskal herritarretatik 3k babesten du ofizialtasun hori.

Biztanleriaren banaketa, nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzen duten euskal kirol-selekzioak Euskadiren ordezkari gisa egotearen gainean duten iritzia eta adin-taldearen arabera 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Oso ondo	49,4	48,6	53,2	49,7	52	50,7
Ondo	28,2	29,5	24	25,3	26,2	28,8
Ez ondo, ez gaizki	12,4	16,2	14,3	17,3	16	10,2
Gaizki	1,5		0,9	1,4	1,1	1,3
Oso gaizki		1	0,4		1,6	0,4
ED/EDE	8,5	4,7	7,2	6,4	3,1	8,6



Lurraldeka, aldiz, ezberdintasun batzuk nabari dira, baina ofizialtasun hori babesten duen gehiengo zabal baten barruan. Gipuzkoan, % 80ra iristen da euskal futbol-selekzioak lehiaketa ofizialak jokatzeari ondo edo oso ondo iruditzen zaion biztanleriaren ehunekoak, Bizkaian baino puntu eta erdi eskas gehiago.

Araban, aldiz, % 70era jaitsi da selekzioaren ofizialtasuna babesten duen ehuneko hori; arabarren % 21i ez zaio axola, eta % 2 baino ez da horren aurka agertu den kolektiboa.


Euskal Futbol Selektzioak Euskadiren ordezkari gisa nazioarteko txapelketa ofizialak jokatzeari lotuta biztanleriak duen jarrera, Lurralde Historikoaren arabera. 2022

	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Oso ondo	41,8	53,8	51,3
Ondo	28,3	26,5	27,1
Ez ondo, ez gaizki	21	10,9	13,8
Gaizki	1,6	1,4	0,7
Oso gaizki	0,5	0,5	0,6
ED/EDE	6,7	6,9	6,4

EAEko biztanleriaren gehiengo zabal bat ere euskal kirol-selekzioak nazioarteko lehiaketa ofizialean egotearen alde dago.

Oro har, eta futbol-selekzioaren kasuan adierazitakoarekin bat etorritik, EAEko biztanleen % 76,3k uste du Euskadiko kirol guztietan egon beharko luketela lehiaketa ofizialean lehiatzen diren euskal kirol-selekzioak. % 3,4 soilik dago horren aurka.

Babes-maila handi hori berdina da emakumeentzat eta gizonentzat.



Biztanleriaren banaketa, Euskadin nazioarteko txapelketa ofizialean parte hartzen duten euskal kirol-selekzioak egotearen gainean duten iritzien eta sexuaren arabera. 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai, kirol guztietan	75,7	76,9
Bai, baina ez kirol guztietan	3,6	3,2
Ez	4,7	2,2
ED/EDE	15,9	17,7



Adinaren arabera, halaber, euskal kirol-selekzioen ofizialtasunaren babes-maila handia dago adin-talde guztietan, eta 4 euskal herritarretik 3k baino gehiagok babesten dute kirol-selekzio ofizial horiek egotea. Nolanahi ere, babes-maila hori zertxobait handiagoa da gazteenen artean, % 85etik gorakoa baita

Biztanleriaren banaketa, Euskadin nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzen duten euskal kirol-selekzioak egotearen gainean duten iritziaren eta adin-taldearen arabera. 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai, kirol guztietan	80,3	80,3	79,9	73,8	76,7	73
Bai, baina ez kirol guztietan	5	2,7	2,6	3,6	4,1	2,8
Ez	1,9	2,4	4,4	4,8	4,2	2,5
ED/EDE	12,8	14,6	13,2	17,7	14,9	21,7

Hiru lurraldeetako biztanleria euskal selekzioen ofizialtasunaren alde ageri da kirol guztietan, baina ehuneko hori handiagoa da Gipuzkoan (% 79,7), Bizkaian (% 75,8) eta, bereziki, Araban (% 70,5) baino.

Biztanleriaren banaketa, Euskadin nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzen duten euskal kirol-selekzioak egotearen gainean duten iritziaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2022


	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai, kirol guztietan	70,5	79,7	75,8
Bai, baina ez kirol guztietan	4,2	3,1	3,3
Ez	5,6	3	3
ED/EDE	19,7	14,1	17,8

## 9.- KirolTxartela Mugiment

EAEko herritarrek Kiroltxartela Mugiment-ekin lotuta duten ezagutza eta erabilera maila egiaztatzeari ekin dio inkestak. Txartel honek herritarren artean kirola sustatzea eta EAEnbizi diren herritarren kirol-eskaintza handitzea du helburu. Txartel horren bidez, beren udalerrietan abonatuak beste udalerrietako kirol-instalazioetara sartu ahal izango dira kostu gehigarririk gabe, udalerrri bakoitzaren erabilgarritasunaren arabera.

Euskadiko herritarren % 4k baino ez du MUGIMENT txartela.

Herritarren % 95,3k ez du MUGIMENT txartela. Herritarren % 4k soilik adierazi du txartel hori duela. Txartel hori duten gizonezkoen eta emakumezkoen ehuneko oso antzekoa da.



KirolTxartela Mugiment duen biztanleriaren banaketa, sexuaren arabera 2022

	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai, badu	4,6	3,8
Ez du	95	95,7
ED/EDE	0,4	0,5

Era berean, adin-taldeen arabera, ia ez dago alderik txartel hori duten pertsonen ehunekoan. 64 urtetik gorakoen kasuan soilik nabari da murrizketa; horrekin lotuta, % 2k soilik du txartel hori.

KirolTxartela Mugiment duen biztanleriaren banaketa, adin-taldeen arabera 2022

	ADINA					
	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 64 urte
Bai	4,1	6,3	5,1	5,5	4,1	2,1
Ez	95,9	93	94,4	94,5	95,5	96,9
ED/EDE		0,6	0,4		0,5	1

Era berean, hiru lurralde historikoetan, txartel hori duten pertsonen proportzioa oso txikia da: % 5,1 Bizkaian, % 3,6 Gipuzkoan eta % 2,3 Araban

KirolTxartela Mugiment duen biztanleriaren banaketa, Lurralde Historikoaren arabera 2022


	LURRALDE HISTORIKOA		
	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Bai	2,3	3,6	5,1
Ez	96,2	95,9	94,7
ED/EDE	1,5	0,5	0,2



Azkenik, txartel hori duten pertsonen % 43k dio bizilekuaz bestelako udalerriren bateko kirol-instalazioren batean erabili duela, batez ere emakumeen artean.

Ekimen horrekin lotuta, zu bizi zaren udalerrikoa ez den kirol-instalazioren bat erabili al duzu?

Oinarria: Kiroltxartela Mugiment duen udalerrria



Biztanleen banaketa, KirolTxartela Mugiment erabiltzearen edo ez erabiltzearen eta sexuaren arabera. 2022


	SEXUA	
	Gizona	Emakumea
Bai, erabili dut	35,2	53,5
Ez dut erabili	57,3	46,5
ED/EDE	7,5	

## 10.- Ondorioak



Jarraian, inkesta honen emaitza eta ondorio nagusien laburpena dator:

1. EAEko 15 urtetik gorako hiru biztanletatik bik (% 64,3k) kirola egin du azken urtean, aldizka edo noizean behin. Era berean, biztanleriaren % 73,4 gutxienez hamar minutuz jarraian oinez azkar ibiltzera joan da, sasoi fisikoari eusteko edo hobetzeko asmoz.
2. Kirol-jarduera hori egiten duten pertsonen ehunekoa alde nabarmenak daude, sexuaren eta adinaren arabera:
  - a. Emakumeek (% 58) gizonek (% 71) baino kirol-praktika maila nabarmen txikiagoa erakusten dute; hala ere, azkar samar paseatzera edo oinez ibiltzera joateko ohitura pixka bat handiagoa da emakumeen artean.
  - b. 55 urtetik beherakoen artean kirola egiten dutenen ehunekoa altua da, % 78,4; aldiz, adin-tarte horretatik aurrera, berriz, nabarmen jaisten da kirola egiten dutenen ehunekoa.
  - c. Lurralde historikoen arabera, aldeak txikiagoak dira: bizkaitarren % 61,5ek adierazi du kirola egiten duela, Gipuzkoan eta Araban baino 6 puntu gutxiago (% 67,2 eta % 68, hurrenez hurren).

Kirola egiten duten edota oinez ibiltzera edo paseatzera joaten diren pertsonak, sexuaren arabera. 2022 (EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleria osoarekiko %)



3. Ikerketaren emaitzarik garrantzitsuenetako bat da azken urtean kirola egin duten pertsonen artean kirola egiteko maiztasunak izan duen igoera. Kolektibo horren % 28k egunero egiten du, eta % 67,7k gutxienez astean behin.





4. Kirola egiteko maiztasuna oso antzekoa da sexuaren arabera, baina alde nabarmenak daude adinaren arabera. 64 urtetik gorakoen artean, kirola egiteko maiztasuna oso handia da: adin-tarte horretako biztanleriaren erdiak egiten du kirola egunero (% 48,7), gazteenak baino 20 puntu gehiago (24 urtetik beherakoen kasuan, % 28,3).
5. Inkesta egindako pertsonen erdiaren baino gehiagoren ustez (% 54,7), egiten duten jarduera fisikoa nahikoa da. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da egokia litzatekeen jarduera fisikoa ez dutela egiten uste dutenen taldea; euskal herritarren % 43 litzateke. Ildo horretatik, egindako jarduera fisikoarekiko asebetetze maila horretan alde handia dago sexuaren arabera. Gizonek (% 60,8) emakumeek (% 49,2) baino neurri handiagoan uste dute nahikoa jarduera fisiko egiten dutela.
6. Azterketak, halaber, aukera ematen du euskal herritarren artean kirolarekiko (oro har) interes handia dagoela egiaztatzeko. Interesa, batez beste, 7,1ean kokatzen da 0 eta 10 arteko eskalan. Horrez gain, kirola egiteko batez besteko interesa ere maila adierazgarrian dago (batez beste 6,8) Aitzitik, kirol-ekitaldietara joateak interes-maila txikiagoa du, 4,6ko batez bestekoa 0tik 10era bitarteko eskalan, eta kasu honetan aldea adierazgarria da gizonen (5,3) eta emakumeen (4,0) artean.
7. Kirola egitearen ezaugarriak eta ohiturei dagokienez, azken urtean kirola egin duten pertsonen sexuaren arabera alde nabarmenak ikusten dira:
  - Gizonek gehiago egiten dute aire zabaleko kirola: kirola egiten duten biztanleen erdiek baino gehiagok aire zabalean egiten duten arren, gizonen kasuan ehuneko hori % 65,9ra igo da, eta emakumeen kasuan, berriz, % 46,2ra.
  - Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte kirol-instalazioak: % 44,6, eta gizonezkoek % 30,1.
  - Kirola egiten duen biztanleriaren % 42,6k bakarka egiten du, eta % 45,1ek beste batzuekin batera. Emakumeen artean, kirola beste batzuekin batera egiten dutenen ehuneko gizonena baino handiagoa da –% 50,4 emakumeen artean, eta % 40,3 gizonen artean–.
8. Era berean, azterketaren arabera, EAEn kirolen bat egiten duten herritarren artean kirol-jarduera ugari daudela ikus daiteke. Nolanahi ere, mendiko jarduerak nabarmentzen dira, azken urtean kirola egin duten hiru pertsonetatik batek egiten baititu (% 34,7). Beste behin ere, aldeak nabari dira sexuaren arabera:
  - Azken urtean kirola egin duten emakumeek gehien praktikatzen duten kirola gimnasia arina da (% 36,7). Gimnasia horretan, besteak beste, dantza, pilates, yoga eta abar sartzen dira.
  - Gizonen artean, berriz, kirol nagusia (% 40,3) mendia, eskalatzea edo alpinismoa da.



- 9.** Adina faktore erabakigarria da kirol-modalitatea aukeratzeko orduan: azken urtean kirolen bat egin duten 35 urte arteko gazteen artean, gimnasia gogorra da modalitate nagusia, eta, beraz, 3 gaztetik 1ek baino gehiagok egiten dute; 65 urtetik gorakoen artean, berriz, gimnasia arina egiten da gehien.
- 10.** Euskal kirolaren jarduera azaltzen duten arrazoiak aztertzerakoan, egiaztatu da osasuna eta sasoiaren egotea direla motibazio nagusiak; hala adierazten dute inkesta egindako pertsonen erdiek baino gehiagok. Kirolarekiko zaletasuna maila egokian dago kirola egiten duten pertsonen proportzio esanguratsu batek hala adierazita (% 22).
- 11.** Ikerketak kirol-lehiaketetako parte-hartzea ere jorratzen du: azken urtean kirola egin duten biztanleen artean, % 16k kirol-lehiaketa antolaturen batean parte hartu du. Mota horretako ekitaldietan emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz ere txikiagoa da; emakumeen kasuan, % 9,2koa da, eta gizonen kasuan, % 22koa, eta adinez zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta txikiagoa da lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa: 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, 3 pertsonatik 1ek, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 6,2k.
- 12.** Ildo horretan, EAEko biztanleek kirol-klub, federazio eta patronatuekin duten lotura-maila oso adierazgarria da: EAEko biztanleen % 44,1 kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarteren bateko bazkide edo abonatua da, eta EAEko hiru lagunetik bat (% 13,1) kirol-federazioko lizentziaren baten titularra da; hala ere, alde adierazgarriak daude sexuaren eta adinaren arabera:
- Kirol-instalazio, gimnasio, klub edo kirol-elkarte bateko bazkide edo abonatu diren gizonen ehunekoa (% 48,5) handiagoa da emakumeena baino (% 39,9). Zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta lotura handiagoa da horrelako erakundeekin.
  - Horrelako lizentziak dituzten gizonen ehunekoa (% 20,5) emakumeena (% 6,3) baino 3 aldiz handiagoa da.
- 13.** EAEko biztanleen % 46,8k adierazi du azken urtean kirol-ikuskizunen batera bertaratu dela modu presentzialean, eta azken urtean kirol-ikuskizunetara joan diren gizonen proportzioa handiagoa da (% 56,4) emakumeena baino (% 37,8). Aldiz, adinaren arabera, ia ez da aldaketarik antzeman. Aurrez aurreko kirol-ikuskizunetara bertaratzen diren pertsona gehienak talde-kirolekin lotutako ekitaldietan biltzen dira: azken urtean kirol-ekitaldiren batera joan diren pertsonen % 72,2k taldeko kirolekin lotutako ekitaldietara joatea erabaki du.
- 14.** Bestalde, EAEko biztanleen % 68k prentsaren, telebistaren, Interneten, irriaren eta abarren bidez jaso du kirolari buruzko informazioa. Horrekin lotuta, alde handia nabari da sexuaren arabera. Gizonen kasuan, gehiengoak (% 82) jasotzen du kirolari buruko informazioa bitarteko horien bidez. Aldiz, emakumeen kasuan, ehuneko hori % 54,7ra murrizten da.





- 15.** Azkenik, kirolari lotutako politikari eta hura hobetzeko proposamenei buruzko beste gai eta iritzi batzuei dagokienez, honako hau adierazten da:
- a. Gazteenen kasuan soilik ikusten da 15 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 21ek uste duela beharrezkoa dela kiroldegien eta gimnasioen prezioak jaitea. Kirola sustatzea, informatzea eta animatzea interesgarri dela uste duten 15-24 urteko gazteen ehunekoa ere handia da (adin-tarte horretako % 22), baina 35 urtetik aurrera nabarmen egiten du behera.
  - b. EAEko biztanleriaren gehiengo zabal bat euskal futbol-selektzioak partida ofizialak jokatzearen alde dago: EAEko biztanleriaren % 77,7 alde dago, eta babes hori oso antzekoa da emakumeen eta gizonen artean.
  - c. EAEko biztanleriaren gehiengo zabal modu koherentean, euskal kirol-selektzioak nazioarteko lehiaketa ofizialetan egotearen alde dago. EAEko biztanleen % 76,3 Euskadiko kirol guztietan lehiaketa ofizialetan lehiatzen diren euskal kirol-selektzioak izatearen aldekoa da.



# EMAITZEN LABURPENA (EAE/ESTATUA 2022)

---



### Kirolari lotutako interes-mailaren batez besteko balorazioa Balioak 0 eta 10 artean

	EAE			ESTATUA		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Kirola, oro har	7,1	7,6	6,7	6,4	7,0	5,8
Kirola egitea	6,8	7,1	6,6	5,7	6,2	5,3
Kirol-ikuskizunetan parte hartzea	4,6	5,3	4,0	4,1	4,7	3,5
Seme-alabek kirola egitea						
<i>Oinarria: kargupean seme-alabak dituzten biztanleak</i>	8,3	8,1	8,4			

### Azken urtean kirol-jarduerarekin zerikusia izan duten adierazleak

	EAE			ESTATUA		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
<b>Kirol-jardueraren maiztasuna</b>	<b>64,3</b>	<b>71,0</b>	<b>58,1</b>	<b>57,3</b>	<b>63,1</b>	<b>51,8</b>
Kirola egiten du egunero	27,7	29,3	25,9	23,8	27,0	20,7
<b>Kirol-jardueraren ezaugarriak</b>						
<i>Oinarria: kirola egiten duen biztanleria</i>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Kirola egiten duen lekua</b>						
Kanpoaldea	56,7	65,9	46,2	45,3	52,5	37,0
Eremu itxiak	37,0	30,1	44,6	22,3	15,8	29,7
<b>Egindako kirol-modalitate nagusiak</b>						
Mendia, eskalada, alpinismoa	34,7	40,3	28,4	30,8	29,7	32,0
Gimnasia gogorra (aerobika, crossfit, zinta, spinning, zumba, eliptikoa...)	22,9	20,3	25,8	28,0	22,6	34,1
Txirrindularitza, mountain bike, ziklokrosa,...	22,0	30,3	12,6	28,4	36,3	19,2
Igeriketa	21,1	20,0	22,4	27,2	25,9	28,7
Gimnasia arina (dantza, pilates, mantentzea, yoga, tai-chi...)	21,1	7,4	36,7	26,4	13,1	41,5
Korrika egin, runninga, ibilketa	17,6	21,0	13,8	19,0	22,5	15,0
Halterofilia, kulturismoa, muskulazioa	7,8	9,9	5,5	17,0	22,0	11,3
<b>Egindako kirol-modalitate nagusiak</b>						
<i>Oinarria: guztizko biztanleriarekiko ehunekoa</i>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Mendia, eskalada, alpinismoa	22,3	28,6	16,5	17,6	18,7	16,6
Gimnasia gogorra (aerobika, crossfit, zinta, spinning, zumba, eliptikoa...)	14,7	14,4	15,0	16,0	14,3	17,7
Txirrindularitza, mountain bike, ziklokrosa,...	14,2	21,6	7,3	16,3	22,9	10,0
Igeriketa	13,6	14,2	13,0	15,6	16,4	14,9
Gimnasia arina (dantza, pilates, mantentzea, yoga, tai-chi...)	13,6	5,3	21,3	15,1	8,4	21,5
Korrika egin, runninga, ibilketa	11,3	14,9	8,0	10,9	14,2	7,8
Halterofilia, kulturismoa, muskulazioa	5,0	7,0	3,2	9,8	13,9	5,9
<b>OINEZ AZKAR IBILTZEKO jarduera fisikoan biztanleriak duen parte-hartzea</b>	<b>73,4</b>	<b>72,3</b>	<b>74,3</b>	<b>72,1</b>	<b>68,2</b>	<b>75,9</b>
<b>Federazioekin edota kirol-erakundeekiko loturarekin zerikusia duten adierazleak</b>						
Bazkideak, kirol-instalazioetako bazkideak (guztizko biztanleriaren gaineko %)	44,1	48,5	39,9	31,2	32,7	29,8
Kirol-baimena dute (guztizko biztanleriarekiko %)	13,1	20,5	6,3	9,6	14,9	4,6
Kirol-ikuskizunetara joatea	46,8	56,4	37,8	31,1	39,4	23,4
Ikus-entzunezko bitartekoen bidez	67,8	82,0	54,7	72,2	82,3	62,6



# ERANSKINA

## ERABILITAKO GALDETEGIA

---